

Acreca Xendazaletasuna 2017 Tenerifen (Bitakora-koaderno)

Aurten ere egin da Acrecaren ohiko xendazale-elkarretaratzea. Eta jada asko izan dira... Kutzak iraganeko kontua dira, baina xedazaleon familiako loturek lehen urtean bezain sendo irauten dute.



Aurten Tenerifen izan da eta zehazki uhartearen iparraldeko erdian, eskualde berdean. Teidera igotzeko aukera galdu gabe, noski. Egunak: maiatzaren 14tik 21era. Guztion gogoak asetzeko Cajacanariaseko lankideek prestaturiko 7 ibilbideak ikus ditzakezue ondoko mapan. Batzuek ibilaldi guztiak egin zituzten eta beste batzuek ia denak, egun batzuetan atsedean hartuz.

Lehenengo aitortu behar da zoragarri atera dela guztia, eta ohiko lagunarte-girorik jatorrenean igaro direla egunak. Jende asko ari zen errepikatzen, baina aurpegi berriak ere baziren. Guztira, ehun parte-hartzaile inguru ginen.

Beti bezala, euskaldunok nabarmendu gara: talderik jendetsuena izan gara, mendian aktiboenak eta diskotekan gutxien ibili garenak. Horretan, beti bezala.



Astelehenean, uhartearen adarrean, **Anagako Landa Parkea** ezagutzera eraman gintuzten,. Baso hezeak, udan ere bai, inguru hartan espero ez genuena. Zerbaitengatik deitzen diote *Montefrío*. Esan ziguten alisio haizeek dutela neurri batean errua. Ibilbide guztietan bezala, beti Teideren irudia atzean. Taldearen argazkia egiteko aprobetxatu genuen, guztiok txukun uniforme jantzita. Uniforme horia dutenak antolatzaileak dira. Gora haiek!!!

Amaieran, Interpretazio Zentroko jatetxean izan ginen indarrak berritzeko.

Asteartean, parte-hartzaileen erdiak Teidera igo ziren. Ez dakienak jakin beza baimena behar dela eta kopurua mugatua dela. Baina ez zen gure taldearen eguna. Guri *canariensis* pinudi bat ikustea egokitu zitzaigun, uhartearen iparraldean aski ugaria den pinu mota. Ibilaldi polita floraren askotarikotasuna preziatzeko, baita kosta gaineko ikuspegiak ere, besterik gabe. **Orotava Haranetik** ibilaldi luze bat egin ondoren, platerean ipini ziguten guztia garbitu genuen (egia esateko, guzti-guztia ezinezkoa izan zitzaigun).

Asteazkenean goiz jaiki behar izan genuen. **Teidera oinez igotzeko** 6:30ean irten behar da hoteletik. Ia guztiok joan ginen. Eta gainera gailurrera iritsi ginen, nahiz eta bakarren batek eskertuko zukeen oxigeno apur bat han goian. Sufrezko fumarolak ohartaraziz ... sumendia lo bai, baina bizirik dagoela. Nire ustez, taldeko aitonak gasen eraginez errepikatzen zuen etengabe bera ere igo zela.

Han goian atsegina zen tenperatura, baina parkingera jaitsi ginenean, beroa itogarria zen. Eta garagardo freskoa, ezinbestekoa. Hor dago oroigarri gisa Kutxabankeko parte-hartzaileok gailurrean egindako argazkia.



Teidera igo ez zirenentzat, hautabide polita zuten prestatuta iparraldeko kosta malkartsuan zehar: **Afur-etik Tagananara Tamaditetik igaroz.**

Ostegunean ezusteko bat prestatu ziguten: ibilaldi polita erupzio berrien inguruetatik. Izan ere, 1909an izan zen **Chinyero sumendiaren** erupzioa. Basamortu itxurakoa, haitz gogorrak eta hondar beltzak. Ia duela mende bat bezala. Laba-koladatik onik atera ziren pinudiek ematen zuten kolore apur bat inguruan. Paisaia polita, ezberdina. Atsegin izan genuen. Tenerifera joaten bazarete, Mascako sakanera jaitsi eta Teidera igotzeaz gain, hauxe da egin gabe utzi behar ez duzuen ibilaldi bat. Amaitzeko, ezin bestela izan, guachinche-ekin otordua aire zabalean San José de los Llanos-en. Pena izan zen eguraldia, lainoa sartu eta jantziak soinean hartu behar izan genituen eta. Ondoko argazkietan, sumendi-paisaiaren zenbait ikuspegi.



Eta ostiralean, berriro erakutsi ziguten Tenerife iparraldeko mendiak hezeak direla. **El Monte del Agua** deitzen dute eta hozkailuan sartzea bezala da. Ibilaldia Cruz de Hilda begiratokian hasten da, Masca sakan ezagunetik hurbil. Kaktus eta verodes artean, Cruz de Gala tontorrera iritsi ginen. Beherakoan, bi metro baino luzeago ziren garo edo iratze artetik ibili ginen, eta mendi-lepo batean,

bat-batean eskuinera hartu eta *laurisilva* baso itxi batean barneratu ginen. Berrogeita hamar metrotan 15° jaisten da tenperatura. Eta hezetasuna, hezetasun handia. El Monte del Aguatik Charcas de Erjos-eraino jaitsi ginen, han metatzen delarik menditik behera etorritako ura.



Masca sakanaren argazkia Cruz de Hilda begiratokitik.

Larunbaterako galdetu ziguten ea gehiago nahi genuen ala nahikoa zen, ea zenbatek genuen ibilaldia egiteko asmoa. Eta eskerrak aurrez esan ziguten, Asomadero-rako igoerari nire ustez ‘izerditokirako igoera’ deitu beharko litzaioke eta. Eskarmentu handienekook beti eramaten dugu elastiko bat aldatzeko. Chanajigako jolasgunean atsedean hartu ondoren, desbideratu egin gintuzten **Til de los Pavos** ikusteko: zuhaitz honek hezetasuna biltzen du eta bere azpian beti sortzen da iturri bat. Han ere kontatu ziguten neska mairu eta soldadu kristau bati buruzko istorioa, niri ezagun egin zitzaidana Granadan, Huescan eta beste nonbait ere entzuna nuelako. Hainbeste mairu maiteminduta egoteak erresuma musulmanaren gainbehera ulertzen laguntzen du, zalantzarik gabe.



Aipamen berezia Teidera gauez igo ziren ausartentzat, handik egunsentia eta Teideren itzala, La Palma uharteraino itsasoan proiektatua, miresteko. Gure taldetik, bi joan ziren. Besteok, halako nostalgia batez, zera esatera mugatu ginen: Gaztea izan behar da horretarako!!!

Baina bada bizitzarik mendiaz haratago ere. Batzuk arratsaldeez baliatu ziren igerilekuan bainatzeko eta Puerto de La Cruzen osteratxo bat egiteko. Banaka batzuek Spa ere erabili zuten. Beste batzuok arratsaldeetan inguruak ikusi genituen. La Orotavak guneko historiko polita du, eliza bitxia, lorategi ederrak eta balkoi ospetsuak. Eta La Lagunan, antzinako kaleak dituen unibertsitate-hirian, Adelantado plaza eta La Lagunako Kristoa ikusi behar dira. Edo Garachicon itsas ura duen igerilekua dago, haitz artean zizelkatua, guk ikusi genuen egunean olatu zakar samarrekin. Eta, jakina, Puerto de la Cruz-en Martiánez ur-guneko, Loro Parque, lorategi botanikoa, Ábaco delakoa eta abar.



Amaitzeko, larunbat gauean ohiko gala-afaria, eta orduan bateko eta besteko guduak kontatu genizkion elkarri eta, kopatxo batzuk hartu ondoren, antolatzaileen lana goretsi genuen, ezin hobeto pasa genituelako egunak eta, ezerk ez badigu eragozten, datorren urtean berriro elkar ikusteko asmoa berretsi genuen.

Eta pozik etxera, pozik adiskide xendazaleekin berriro elkartzeko aukera izan genuelako, motxila oroitzapen politez beterik genekarrelako eta datorren urtean ere joateko gogoz, nahiz eta oraindik ez jakin nora... Eta batzuok kilotxo batzuk gehiago ere ekarri genituen soinean.